



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko otsailaren 20a

25. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, aldatzen duena martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeen nahiz genero-indarkeriaren biktimen ondarea babes dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan aintzat hartzeko genero-indarkeria pairatzen duten edo hura jasateko arriskuan dauden emakumeentzako txakur bizkartzainen laguntza. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere ekonomia- nahiz finantza-eskumenak defenda ditzan Estatuko Gobernuaren aitzinean eta eska diezaion indargabetu ditzan Konstituzioaren 135. artikulua aldatzea nahiz Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatu-tuan Nafarroa sartzearen aurka dagoela. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doakoak izan daitezen turismo-ibilgailuek AP-15ean 24 orduan egiten dituzten joan-etorriak. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Kataluniako Gobernuarekiko negoziotazioa amaitutzat eman dezan, nazioaren subiranotasunaren banaketa bilatzen baitu. Mozioa erretiratzea (12. or.).

---

A saila:  
FORU LEGE PROIEKTUAK

---

**Foru Legea, aldatzen duena martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, aldatzen duena martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea, aldatzen duena martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa**

HITZAURREA

Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak aurreikuspen sozialeko eta eskubide pasiboetako sistema bat ezartzen du, berekia, autonomia eta independentea Gizarte Segurantzaren sistemarekiko eta Estatuko klase pasiboen sistemarekiko, haietako bakoitzak bere araudia baitu. Araubide hori aukeratu zuten funtzionarioentzat (“desagertu beharreko” kolektiboa osatzen dutenak, foru legean aurreikusitakoaren aurrekoan jarraitzea aukeratu zutenak bezala) foru legeak ezarri zuen eskubide pasiboen sistemak oinarritzko zutabe hauek ditu: batetik, Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren oinarri diren funtsezko printzipioak biltzen ditu, eta, bestetik, Nafarroako Foru Komunitateko montepioen siste-

mak, foru legean aurreikusitakoaren aurrekoak, zituen zenbait berezitasun aurreikusten ditu, zeinnek Estatuko klase pasiboen araubidean jasotakoen nolabaiteko antza baitute.

Azken urteetan berritasun eta aldaketa garrantzitsuak gertatu dira Gizarte Segurantzaren sistema orokorrean, eta haietako batzuk erantsi zaizkio ondoren Estatuko Klase Pasiboen Araubideari; horiek, ordea, ez dira jaso aurreikuspen sozialeko eta eskubide pasiboetako gure sisteman, hala nola: a) amatasunagatiko osagarriaren ezarpena Gizarte Segurantzaren sistemako kotizaziopeko pentsioetan, bai eta Estatuko klase pasiboetako sisteman ere, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legearen bidez ezarritakoa, 2016ko urtarrilaren 1ean indarra hartu zuena eta, egun, honakoetan jasota dagoena: Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan eta Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testu bategina onesten duen apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege-dekretuaren hemezortzigarren xedapen gehigarria; b) Gizarte Segurantzaren sisteman erretiroa hartzeko adina aurreratze eta koefiziente zuzentzaileak ezartzeko araubide juridikoari eta prozedura orokorrari buruzko azaroaren 18ko 1698/2011 Errege Dekretuaren bidezko erregulazioa, bai eta, ondoren, erretiroa hartzeko adina murrizten duen koefizientearen ezarpena ere, martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretuaren bidez, administrazio eta erakunde publikoen zerbitzuko suhiltzaileen alde (2017an eta 2018an koefizientea aplikatzea jasota dago 2017ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legearen hogeigarren xedapen gehigarrian eta 2018ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 20/2017 Foru Legearen hamalaugarren xedapen gehigarrian), eta, abenduaren 5eko

1539/2003 eta abenduaren 4ko 1851/2009 errege dekretuen bidez, erretiroa hartzeko adina murrizteko koefizienteen edo, kasua denean, adin horren murrizketaren ezarpena, desgaitasuna dutenentzat; errege dekretu horiek Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren egungo 206. artikulua garatzeko eman ziren; eta c) erretirodunak erretiro pentsioa jaso eta lanean aritzeko bateraezintasunen araubidea, sistema horietan ezarritakoa; hiru puntu horiek direla eta, komeni da Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen sistema berrikustea, aurreikuspen sozialeko eta eskubide pasiboetako gure sistema, gai horiei dagokienez, osotara edo partzialki egokitzeko gurearen antzekoak diren beste sistema horietan ezarritako araubide juridikora.

Alde horretatik, aurreikusten da Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen gure eskubide pasiboen sisteman ezarri eta aplikatzea erretiroa hartzeko adina murrizten duten koefiziente berriak, jarduera motak edo desgaitasunak eragindakoak, Gizarte Segurantzaren sistema orokorrak egun ezarrita dituenak edo etorkizunean ezartzen dituenak, administrazio horietako funtzionarioei, sistema horren araubide orokorrean sartutakoei, aplikatzen ahal zaizkienak, eta horrela desagertuko dira arlo horretan Nafarroako administrazio publiko desberdinetako langileen artean dauden konparaziozko bidegabekeriak, aurreikuspen sozialeko araubide desberdinei atxikita egotearen ondorioz sortuak; homologazioak edo parekatzeak berekin dakar aipatutako foru legearen hamalagarren xedapen gehigarriko 1. puntuan aurreikusitako araua indargabetzea.

Zehazki, ezartzen da ezen Nafarroako toki entitateetan tokiko polizia gisa zerbitzu ematen duten montepio-sistemaren araubideko langileei aplikatzen ahalko zaiela erretiro-adinaren murriztapen-koefizientea, abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretuari jarraikiz, zeinak erretiro-adinaren murriztapen-koefizientea ezartzen baitu Gizarte Segurantzaren alorreko Toki Administrazioa osatzen duten entitateen zerbitzuko tokiko polizientzat.

Ildo horretan bertan, hemeretzigarren xedapen gehigarrian aurreikuspen bat jasotzen da, halako moldez non, Gizarte Segurantzak erretiro-adinaren murriztapen-koefizienteak edo aurrerapena ezartzen baditu Foruzaingoarentzat, polizia kidego horretako montepio-sistemaren mendeko funtzionarioei aplikatzekoak izanen baitira, kontuan hartuta Gizarte Segurantzaren araudi berariazkoa eta, kasua bada, tokiko poliziari aitortutakoen antzeko baldintzak hartzea, halaber aukera aitorturik

erretiro-sistema berri horren edo Nafarroako montepio-sisteman aitortutakoaren aldeko hautua egiteko.

Beste alde batetik, ikusten da edukian hutsune batzuk daudela, esate baterako zurtasun-pentsioei dagokienez; izan ere, Gizarte Segurantzaren sistema orokorrean prestazio ekonomikoa 25 urtetaraino luzatzen da, hildakoa ama, aita nahiz bi gurasoak izan, baldin eta jasotzen duenak bere kontura edo besteren kontura irabazi asmoa duen lanik egiten ez badu edo, egiten badu ere, urtean eskuratzen dituen diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren indarreko urteko zenbatekoa baino txikiagoak badira, baina gure eskubide pasiboen sisteman eta Estatuko klase pasiboen sisteman, aldiz, prestazioa gehienez ere 22 edo 24 urteetaraino luzatzen da, hurrenez hurren; horrez gain, gure sisteman ez dago aurreikusirik dagokion prestazio ekonomikoa luzatzeko aukera umezurtza ikasten egon eta 25 urte ikasturtean betetzen dituen kasurako, eta horrelakoe-tan zurtasun pentsioa hurrengo ikasturtea hasi ondoko hilabeteko lehenengo eguneraino mantenduko da; horrenbestez, komeni da martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea ere partzialki egokitzea Gizarte Segurantzaren sistema orokorrean ezarritakora. Era berean, sistema horietan ezarrita dagoen bezala, aldatzen da oro har zurtasun pentsiorako eskubidea izateko adin muga, 18 urte-tik 21 urtera pasatzeko.

Martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen testuan, halaber, desadostasunak daude prestazioen preskripzioari eta iraungitzeari dagokienez, bai eta haien sortzapenari dagokionez ere, eta horrek arazoak sortzen ditu haien aplikazio praktikoan; horrekin batera, hutsunea dago aitortutako zerbitzuen arloan, ez baitira aipatzen funtzionarioak aitortuta dituenak beste herrialde batzuetako Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, Nafarroako administrazio publikoetako montepioen araubideak aplika dezakeen nazioarteko hitzarmen edo erregelamendu bat dagoenean, eta komeni da hutsune hori zuzentzea; horretarako, beharrezkoa da berrikustea eta egokitzea Estatuko Gizarte Segurantzaren sisteman eta klase pasiboenean gai horietaz adierazten denera, hurrenez hurren.

Orobat, gure eskubide pasiboen sistema berekiak, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean aurreikusitakoak, sustatzen du lan bizitza borondatez luzatzea nahitaezko erretiroaren adina bete ondoren ere, kasu horietan jasotzen ahal delako oinarri erregulatuzailearen 100eko 100 baino handiagoa den pentsioa, baina pentsioaren urteko gehieneko zenbatekoa mugatuta, betiere, Gizarte Segurantzaren gehieneko pentsio orokorrerako

ezartzen dena inola ere gainditzetik izan gabe. Horregatik, gehieneko pentsiora iritsiz gero, ez zaio aplikatzen pentsioaren 100eko 2aren igoera 65 urtetik aurrera kotizatzen den urte bakoitzeko. Hori dela eta, beharrezkoa da hori berrikusi eta Gizarte Segurantzaren sisteman adierazitakora egokitzea.

**Artikulu bakarra.** Aldatzen dira Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorren buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen artikulua hauek: 2., 3., 21., 29. (1. apartatuari e) letra gehituz), 35., 36., 75 (1. eta 2. apartatuak), 77. (2. eta 3. apartatuak), 79. (1. eta 2. apartatuak), eta 80. (1. apartatua); horrekin batera, lau xedapen gehigarri berri gehitzen dira, hamaseigarrena, hamazazpigarrena, hemezortzigarrena eta hemeretzigarrena. Aurrerantzean testu hau izanen dute aipatutako xedapenek:

Bat. 2. artikulua testu hau izanen du:

“2. artikulua. Izaera.

1. Erretiro pentsioa aitortzeko eskubidea, bai eta heriotzagatiko eta bizirik irauteagatiko prestazioak jasotzekoa ere, preskribaezina da; baina, aitortza hori egiteko, hurrengo artikuluan aurreikusten diren epeak bete behar dira.

Ezintasun iraunkor partzialagatiko eta ezintasuna sortzen ez duten lesio iraunkorregatiko prestazioak aitortzeko eskubideak, aldiz, bost urtera preskribatuko du, kasuko prestazioaren gertaera eragilea izan eta biharamunetik hasita.

Aurreko paragrafoan aipatzen den gertaera eragilea, prestazioena, noiz gertatu den zehazteko, Gizarte Segurantzaren esparruan xedatutakoa hartuko da aintzat.

2. Prestazioak osotara eta behin bakarrik jasotzeko eskubidea urtebetera iraungiko da, interesdunari eskubidea aitortzen zaiola forman jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Aldizkako prestazioak direnean, hileko zenbateko bakoitza jasotzeko eskubidea iraungiko da mugaeguneratu eta urtebetera”.

Bi. 3. artikulua testu hau izanen du:

“3. artikulua. Ekitaldia.

Aurreko artikuluko 1. apartatuan, 1. paragrafoan, jasotzen diren prestazioak aitortzeko eskubidea erabiltzen ahalko da gertaera eragilea izan ondoko edozein unetan, baina aitortzak eskaera aurkeztu baino hiru hilabete lehenagotik izanen ditu ondorioak, ekar ditzakeenak.

Prestaziorako eskubidea aitortzerik ez badago interesdunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, eskubide horrek ondorio ekonomikoak izanen ditu, soilik, interesdunak berari egotz dakizkiokeen akatsak zuzendu eta biharamunetik aurrera”.

Hiru. 21. artikulua testu hau izanen du:

“21. artikulua. Prestazioen sortzapena.

Foru lege honetan araututako prestazioak sortuko dira:

a) Nahitaezko edo borondatezko erretiro pentsioak:

a´) Funtzionarioa alta egoeran badago, lanari utzi eta biharamunetik aurrera.

b´) Alta egoeraren pareko egoeraren batean badago, egoera haietako bakoitzarako ondotik zehazten den egunetik aurrera:

– Zerbitzu eginkizunen egoeran egonez gero, egoera hori eragin zuen karguari edo lanari utzi eta biharamunetik aurrera.

– Gainerako kasuetan, eskaera aurkeztu eta biharamunetik hasita.

c´) Alta egoeran edo alta egoeraren pareko egoeran ez badago, eskaera aurkeztu eta biharamunetik hasita.

b) Ezintasun iraunkorregatiko erretiro pentsioak: dagokion administrazio organoak ezintasunagatiko erretiroa deklaratzeko emandako ebazpenaren eguna, horrek galarazi gabe ondorio ekonomikoek atzeraeragina izatea hura amaitu zen uneraino, ezintasun iraunkorrek jatorria aldi baterako ezintasunean duenean.

c) Ezintasun iraunkor partzialaren edo ezintasuna eragiten ez duten lesio iraunkorren deklarazioaren unetik aurrera, kasu horietan aurreikusten diren kalte-ordain orokorrak direnean.

d) Kausatzailea hil eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera, alargun eta zurtasun pentsioen kasuan, salbu eta jarduneko funtzionarioa hiltzen denean, kasu horretan gertaera eragilea izan eta biharamunetik aurrera sortuko baitira.

e) Familiakoentzako pentsioetan, eskubidea sortu duena hil eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik, ezkontide alargunik edo umezurtz pentsioa kobratzeko legeko eskubidea duen umezurtzik ez dagoen kasuetarako, edo alarguna edo, halakorik badago, umezurtz pentsiodun umezurtzak hil edo lege gaitasuna galdu eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik”.

Lau. 29. artikuluko 1. apartatuari e) letra gehitzen zaio. Hona:

“29. artikulua. Aitortutako zerbitzuak.

1. apartatua, e) letra. Funtzionarioak, zerbitzu aitortuak izatea beste herrialde batzuetako Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako araubideak aplikatu dezakeen nazioarteko hitzarmen edo erregelamendu bat dagoenean horretarako, eta, betiere, nazioarteko bitarteko horietan eta kasuan aplikatu beharreko erregelamenduzko arauetan jasotako modu eta baldintzekin”.

Bost. 35. artikulua testu hau izanen du:

“35. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

Nahitaezko erretiro pentsioaren zenbatekoa zehazteko, oinarri arautzaileari kasuko portzentajea aplikatuko zaio, eskala honen arabera eta kotizazio urteak kontuan hartuta:

Kotizazio urteak	Oinarri arautzailearen portzentajea
Hamabost urtera	50
Hamasei urtera	53
Hamazazpi urtera	56
Hemezortzi urtera	59
Hemeretzi urtera	62
Hogei urtera	65
Hogeita bat urtera	68
Hogeita bi urtera	71
Hogeita hiru urtera	74
Hogeita lau urtera	77
Hogeita bost urtera	80
Hogeita sei urtera	82
Hogeita zazpi urtera	84
Hogeita zortzi urtera	86
Hogeita bederatzi urtera	88
Hogeita hamar urtera	90
Hogeita hamaika urtera	92
Hogeita hamabi urtera	94
Hogeita hamahiru urtera	96
Hogeita hamalau urtera	98
Hogeita hamabost urtera	100

Erretiro pentsioa hirurogeita bost urte baino gehiagorekin jasotzen hasiz gero, oinarri arautzaileari aplikatu beharreko portzentajea hau izanen da: hirurogeita bost urte betetzez geroztik, pentsioaren gertaera eragilearen egunean kotizatzen den urte oso bakoitzeko 100eko 100ari 100eko 2

gehiago batzearen emaitza, baldin eta une horretan interesdunak hogeita hamabost urteko kotizazioa frogatua badu. Interesdunak frogaturik ez badu hogeita hamabost urteko kotizazioa, aipatutako portzentaje gehigarri hori aplikatuko da, hirurogeita bost urte bete ondoren, kotizazioaldi hori frogatzen duen egunetik aurrera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera lortutako portzentaje gehigarria interesdunari oro har dagokionari batuko zaio, eta horren emaitza den portzentajea kasuko oinarri arautzaileari aplikatuko zaio, pentsioaren zenbatekoa zehazteko, zeina ez baita inola ere izanen foru lege honen 25. artikuluko 1. apartatuan ezarritako gehienekoa baino handiagoa.

Aitortutako pentsioaren zenbatekoa gehieneko horretara iristen bada portzentaje gehigarria aplikatu gabe edo soilik partzialki aplikatuta, interesdunak eskubidea izanen du, gainera, urtean zenbateko bat jasotzeko, unean-unean indarra duen gehieneko zenbatekoari pentsioaren zenbatekoa zehazteko erabili ez den portzentaje gehigarria aplikatuz lortutakoa, goragoko unitate gertuenera ekarrita. Zenbateko hori hileroko sortuko da, hilabete amaieran, eta hamalau ordainketa eginen dira, baina zenbateko horren eta interesdunak aitortua(k) d(it)uen pentsioarena edo pentsioen zenbatekoaren batura ez da izanen, urtean, unean-unean indarra duen kotizazio oinarriaren gehienekoa, urtekoa, baino handiagoa.

Kotizazio urtetzat hartuko dira, eta hortaz aurreko lerroek agintzen dituztenetarako kontatuko, zerbitzu aitortuen denbora aldiak, borondatezko eszedentzian edo eginkizunez gabeturik dauden funtzionarioen kotizazio bereziei dagozkienak, eta Gizarte Segurantzako edozein araubidetan kotizatutakoak foru lege honetako 30. artikuluan agintzen denaren arabera”.

Sei. 36. artikulua testu hau izanen du:

“36. artikulua. Bateriaezintasunak.

1. Erretiro pentsioa jasotzea eta pentsiodunaren lana bateraezinak izanen dira, artikuluhonetan zehaztutako salbuespenekin eta baldintzekin.

Aurrekoa gorabehera, erretiroa hartzen dutenentzat pentsioa jaso eta lanaldi partzialeko lan bat izatea bateragarria izanen da, betiere Gizarte Segurantzaren arloan indarra duen araudian ezarritako baldintzekin. Egoera horretan dagoen bitartean, jasotzen duen pentsioari zenbateko bat kenduko zaio, hain zuzen, lanaldi osoan aritzen den pareko langile batekin alderatuta, pentsiodunaren lanaldiari aplikatu beharreko murrizketaren alderantzizko proportzioan.

2. Bateriaezina da erretiro pentsioa jasotzea eta lanpostu bat betetzea sektore publikoan, Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 1.1 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera ulertzen den moduan.

Aurrekoa gorabehera, bateraezintasun araubide horri lege horren 19. artikuluan eta bederatzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako salbuespenak aplikatuko zaizkio, bai eta lege horren beraren 5. artikuluan aurreikusitakoak ere, aldizkako ordainsaririk jasotzen ez denean hautetsi karguak betetzeagatik autonomia erkidegoetako legebiltzarretako edo toki korporazioetako kide gisa.

Era berean, apartatu honetan aipatzen den bateraezintasuna ez zaie aplikatuko osasun arloko lizentziadun emerituei.

3. Bateriaezina izanen da, halaber, erretiro pentsioa jasotzea eta goi karguak betetzea, zehazki Estatuko Administrazio Orokorreko goi kargua betetzea arautzen duen maiatzaren 30eko 3/2015 Legearen 1. artikuluan eta Foru Komunitateko Administrazio Gubernuko kideen eta goi kargudunen bateraezintasunak arautzen dituen azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 2. artikuluan jasotzen direnak.

4. Horrez gain, ezin izanen da erretiro pentsioa jaso administrazio, entitate edo instituzio publikoen edo haien menpeko erakunde eta enpresetako aurrekontuen kargura ordaintzen den beste edozein ordainsarirekin batera, salbu eta foru lege honetan aurreikusitako kasuetan. Ondorio horietarako, ulertuko da ordainsaria dela aldizka jasotzen den lansaria, edozein direla ere haren zenbatekoa eta izena.

5. Erretiro pentsioa jasotzea bateragarria izanen da norbere konturako lanak egitearekin, baldin eta horien urteko sarrerek, guztira, lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen ez badute urtean.

6. Aurreko apartatuetan jasotako kasu horiek salbu, hau da, erretiro pentsioa eta pentsiodunaren lana bateragarriak direnean kenduta, gainerakoetan kasuan kasuko pentsioa ez da jasoko bateraezina den lanpostua, kargua edo jarduera betetzen den bitartean, baina horrek ez du eraginik izanen errebalorizazioetan.

7. Erretiro pentsioa eta zahartze aktiboa.

Aurreko apartatuetan ezarritakoa ukatu gabe, erretiro pentsioa jasotzea, foru lege honen 26. artikuluko a) letran aurreikusitako kasuan, bateraga-

ria izanen da pentsiodunak bere kontura nahiz besteren kontura edozein lan betetzearekin, Gizarte Segurantzaren arloan indarra duen araudian aurreikusitako modu eta baldintzetan.

8. Erretiroa hartzen duen funtzionarioak jakinarazi beharko dio Nafarroako Administrazio Publiko Montepioari, pentsioa aitortu dionari, lanpostu, kargu edo jarduera ordaindua bete behar duela sektore publikoan edo pribatuan, lanean hasi aurretik jakinarazi ere, eta konpromisoa hartuko du geroago aurkezteko PFEZaren aitopenen kopia bat, kasuko ekitaldiari dagokiona”.

Zazpi. 75. artikuluko 1. eta 2. apartatuek testu hau izanen dute:

“75. artikulua. Pentsiorako eskubidearen baldintzak.

1. Zurtasun pentsioa berdintasunez jasotzeko eskubidea izanen dute kausatzailearen seme-alaba guztiek, haien filiazioa edozein dela ere, kausatzailea hiltzen denean hogeita bat urte baino gutxiago dutenek, betiere.

2. Umezurtzak besteren edo norbere konturako irabazizko lanik betetzen ez badu, edo, betetzen badu ere, urtean lortzen dituen sarrerek, bai laneatik bai prestazioetatik (langabezia, aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, edoskitze naturala edo gurasotasuna), unean-unean ezarrita dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa baino apalagoak badira urtean, zurtasun pentsioaren onuradun izan daiteke, baldin eta kausatzailea hiltzen den unean hogeita bost urte baino gutxiago badu.

Umezurta ikasten ari baldin bada eta ikasturtean zehar betetzen baditu hogeita bost urte, zurtasun pentsioa jasotzen segituko du, hurrengo ikasturtea hasi ondoko lehen hilabeteko lehen egunera bitarte”.

Zortzi. 77. artikuluko 2. eta 3. apartatuek testu hau izanen dute:

“77. artikulua. Bateragarritasuna.

2. Zilegi izanen da hogeita bat urte baino gutxiago dituzten edo lan gaitasuna ezintasun iraunkor erabatekoaren edo elbarritasun handiaren mailan murrizturik daukaten hartzaileen umezurtz pentsioak bateratzea ezkontide biziaren edo umezurtzaren beraren edozein lan irabazirekin, eta bai, hala tokatzen bada, ezkontide biziak jasotzen duen alargun pentsioarekin.

3. Hogeita bat urte baino gehiagoko onuradunen zurtasun pentsioa, ezintasunik ez dutenena, bateragarria izanen da bizirik iraun duen ezkontidearen edo umezurtzaren beraren edozein lan

errentarekin, foru lege honen 75. artikuluko bigarren apartatuan aipatzen diren baldintzetan, bai eta hark jasotzen duen alargun pentsioarekin ere, kasua bada”.

Bederatzi. 79. artikuluko 1. eta 2. apartatuek testu hau izanen dute:

“79. artikulua. Pentsioa etetea.

1. Behin foru lege honetako 25. artikuluko bigarren idatz-zatian aipatu kasuan umezurtz pentsioa jasotzeko eskubidea aitortu delarik, eskubide hori eten egingen da hartzaileak lan kontratu bat sinatu badu edo aurrerakoan sinatzen badu, edozein modalitatekoa, edo bere konturako lan batean aritzen bada edo langabezi, aldi baterako ezintasun, haurdunaldiko arrisku, edoskitze natural edo gurasotasuneko prestazioa jasotzen badu, betiere kontratu, jarduera edo prestazio horretatik sortzen diren dirusarrerak, urteko, lanbide arteko soldata gutxienekoa baino gehiagokoak badira. Eteteko arrazoa gertatu eta biharamunean izanen ditu ondorioak etendurak.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoa aplikatuko da, halaber, hogeita bat urte bete aurretik ere zurtasun pentsioa jasotzen denean eta umezurtzak besteren nahiz norbere konturako lan bat betetzen duenean edo prestazio bat jasotzen duenean, baldin eta sarrerak apartatuan adierazten den gehieneko zenbatekoa baino handiagoak badira. Horrelakoetan, etendurak ondorioak izanen ditu umezurtzak hogeita bat urte betetzen dituenen”.

Hamar. 80. artikuluko 1. apartatuak testu hau izanen du:

“80. artikulua. Pentsioa berreskuratzea.

1. Pentsioa jasotzeko eskubidea berreskuratze egingen da lan kontratua iraungi, bere konturako jarduera utzi edo, hala tokatzen bada, langabezi, aldi baterako ezintasun, haurdunaldiko arrisku, edoskitze natural edo gurasotasuneko prestazioa bukatzen denean edo, jarduera batean aritzen edo prestazio bat jasotzen segitzen badu, batetik zein bestetik heldu diren dirusarrerak ez direnean aurreko artikuluko lehen idatz-zatiko muga baino gehiagokoak”.

Hamaika. Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da. Testu hau izanen du:

“Hamaseigarren xedapen gehigarria. Amatasun nagatiko osagarria Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren sistemaren pentsioetan.

Pentsiorako osagarri bat aitortuko zaie seme-alaba biologikoak edo adoptatuak izan dituzten

emakumeei, nahitaezko erretiro pentsioen, ezintasun iraunkorrekoen edo alargun pentsioen onuradunak direnei, pentsio horiek Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren sistemakoak badira, Gizarte Segurantzaren arloan indarra duen araudian aurreikusitako moduan”.

Hamabi. Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da. Testu hau izanen du:

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko suhiltzaileen erretiro adina murrizteko koefizientea ezartzea.

Suhiltzaile gisa zerbitzuak ematen dituzten langileei erretiro adina murrizteko koefizientea aplikatuko zaie, Gizarte Segurantzaren arloan indarra duen araudian aurreikusitako moduan.

Suhiltzaile lanpostua duten funtzionarioek, montepioaren sistemaren menpe daudenean, eta murrizketa koefiziente hori ez aplikatzea aukeratu dutenek 2018ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 20/2017 Foru Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako bi hilabeteko epean, koefizientea atzeraeraginez aplikatzea aukeratzen ahalko dute, dagozkion ekarpen ekonomikoek kalterik egin gabe, foru lege honek indarra hartu eta bi hilabeteko epean.

Era berean, edozein arau aldaketaren ondorioz dagoena baino baldintza hobea sortzen bada, erretiro adina murrizteko koefizientea aplikatzeari uko egin dionak hura aplikatzea hautatzen ahalko du atzeraeraginez, dagozkion ekarpen ekonomikoek kalterik egin gabe”.

Hamahiru. Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da. Testu hau izanen du:

“Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko tokiko polizia erretiro-adinaren murriztapen-koefizientea ezartzea.

Nafarroako toki entitateetan tokiko polizia gisa zerbitzu ematen duten montepio-sistemaren araubideko langileei aplikatzen ahalko zaie erretiro-adinaren murriztapen-koefizientea, Gizarte Segurantzaren alorreko Toki Administrazioa osatzen duten entitateen zerbitzuko tokiko polizia erretiro-adinaren murriztapen-koefizientea ezartzen duen abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretuan ezarritako moduan.

Horretarako, pertsona interesdunak kasuko udal administrazioari urte bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen jakinarazi beharko dio erretiroa hartzeko bide hau hautatzeko borondatea, 2019an

izan ezik; urte honetan foru lege hau indarrean sartu eta hurrengo hilabetearen azken eguna baino lehen jakinarazi beharko da. Ulertuko da ezen, horrela, uko egiten diola foru lege honetan araturiko borondatezko erretiro aurreratuko sistemari.

Baldin eta edozein arau-aldaketaren ondorioz gertatzen bada dagoena baino baldintza hobea sortzen dela, Gizarte Segurantzaren araudian erretiro-adina dela eta eraendutako murriztapen-koefizientea aplikatzeari uko egin dionak zilegi izanen du hura atzeraeraginez aplika dadin hautatzea, bidezkoak gerta litezkeen ekarpen ekonomikoak eragotzi gabe”.

Hamalau. Xedapen gehigarri berri bat eransten da. Testu hau izanen du:

“Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Erretiro adina murrizteko koefiziente berriak ezartzea jarduera dela eta edo desgaitasuna tartean dela, Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen sistemako pentsioetan.

1. Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioei aplikatuko zaizkie erretiroa hartzeko adina murrizteko edo, kasua bada, aurreratzeko koefizienteak, Gizarte Segurantzaren sistemak jarduera dela-eta ezar ditzaketenak eta aplikatzen ahal zaizkienak administrazio horietako funtzionarioei, sistema horretako araubide orokorrean sartuta daudenei.

Gizarte Segurantzak erretiro-adinaren murriztapen-koefizienteak edo aurrerapena ezarriko balu Foruzaingoarentzat, polizia kidego horretako montepio-sistemaren mendeko funtzionarioei aplikatzekoak izanen dira, kontuan hartuta Gizarte Segurantzaren araudi berariazkoa eta, kasua bada, aurreko xedapenean tokiko poliziarentzat aipatutako baldintzen antzekoak hartzea.

Nolanahi ere, arrisku edo zailtasun berezia duten lanbideen katalogoaren barruan 55 urtetik aurrera erretiro aurreratua aplikatzeko modukoak direnak aztertzeke lana egiten bada, eta ondoren arau bidezko formulazioa, azken horretan xedatutakoari helduko zaio.

2. Era berean, Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioei, Gizarte Segurantzaren esparruan jasota egon eta erretiroa hartzeko adina murriztea edo aurreratzeko ekar dezakeen desgaitasun bat dutenei, aplikatuko zaizkie erretiroa hartzeko adina murrizteko koefizienteak edo, kasua bada, adina murriztuko zaie erretirorako gutxieneko adina ezarriz, aurreikuspen sozialeko sistema horrek ezarri bezala.

3. Erretiro-adina murrizteko koefiziente berrien aplikazioa edo, kasua bada, adin horren murrizketa, jarduera edo desgaitasuna dela eta, aurreko apartatuetan aurreikusi bezala, Gizarte Segurantzaren arloan indarra duen araudian edo aplikatzekoa den lege arauan aurreikusitako modu eta baldintzekin egingen da”.

#### **Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Foru lege honetan xedatutakoaren kontrako maila bereko edo txikiagoko arauak indargabetzen dira; eta, bereziki, Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen xedapen hauek: 39. artikuluko 2. apartatuko lehen paragrafoa, zazpigarren xedapen gehigarria eta hamalaugarren xedapen gehigarriko 1. puntua.

#### **Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.





---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeen nahiz genero-indarkeriaren biktimen ondarea babes dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko otsailaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeen nahiz genero-indarkeriaren biktimen ondarea babes dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar den aldaketa egin dezan Nafarroako tributu sistemako zerga-figuretan, adingabeen nahiz genero-indarkeriaren biktimen ondarea babesteko, sortutako zorraren erantzulea tratu txarraren eragile den bikotekide edo gurasoa den kasuetarako”.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan aintzat hartzeko genero-indarkeria pairatzen duten edo hura jasateko arriskuan dauden emakumeentzako txakur bizkartzainen laguntza.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko otsailaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan aintzat hartzeko genero-indarkeria pairatzen duten edo hura jasateko arriskuan dauden emakumeentzako txakur bizkartzainen laguntza”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gehienez ere sei hilabeteko epean balorazio eta bidegarritasunari buruzko azterlan bat egin dezan aintzat hartzeko genero-indarkeria pairatzen duten edo hura jasateko arriskuan dauden

emakumeentzako txakur bizkartzainen laguntza. Azterlan hori diziplina anitzeko lantalde batek – esparru horretako pertsona eta entitate espezializatuek osatua– taxutuko du. Azterlan horren lantaldeko kideek, txakurren trebatzaileek salbu, generoaren arloko prestakuntza izan beharko dute. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak gidatuko du lantaldea.

2. Azterlan horretan azter dadin plan pilotu bat ezartzeko aukera, honako xede hauekin: neurri horren eraginkortasuna probatzea eta baloratzea, neurria berme ezarri ahal izateko mekanismoak ezartzea eta gizarteko gainontzekoentzat gerta litezkeen arrisku-egoerak baloratzea”.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere ekonomia- nahiz finantza-eskumenak defenda ditzan Estatuko Gobernuaren aitzinean eta eska diezaion indargabetu ditzan Konstituzioaren 135. artikulua aldaketa nahiz Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko otsailaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere ekonomia- nahiz finantza-eskumenak defenda ditzan Estatuko Gobernuaren aitzinean eta eska diezaion indargabetu ditzan Konstituzioaren 135. artikulua aldaketa nahiz Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Berresten du Konstituzioaren 135. artikulua aldaketaren eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren aurka dagoela, eta horiek indargabetzea exigitzen du.

2. Errefusatzen du Estatuko Gobernuak daukan jarrera, modu zurrun eta murriztailean interpretatzen baitu aurrekontu egonkortasunari buruzko araudia eta ez baitu uzten Nafarroak 2017ko aurrekontu orokorretatik heldu den superabiteko 77,5 milioi euroak baliatu ahal izatea.

3. Dio Nafarroak eskubidea duela, ekonomia- nahiz finantza-eskumenak baliatuz, superabit horretako 77,5 milioi euroak Inbertsio Finantzarioki Jasangarriei buruzko Plana onesten duen urriaren 10eko 19/2018 Foru Legean jasotako inbertsioen gastua egitera bideratzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernua premiatzen du arestiko puntu horiek Estatuko Gobernuaren aitzinean defenda ditzan eta protesta egin dezan Nafarroari eskumen horiek baliatu ahal izatea eragozten dion murrizketa dela-eta".

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuan Nafarroa sartzearen aurka dagoela.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko otsailaren 14an egindako bilkuran, ezetsi egin du Carlos García Adanero jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuan Nafarroa sartzearen aurka

dagoela. Mozioa 2018ko maiatzaren 18ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doakoak izan daitezen turismo-ibilgailuek AP-15ean 24 orduan egiten dituzten joan-etorriak.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko otsailaren 14an egindako bilkuran, ezetsi egin du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita doakoak izan daitezen turismo-ibilgailuek AP-15ean 24 orduan

egiten dituzten joan-etorriak. Mozioa 2019ko otsailaren 1eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Kataluniako Gobernuarekiko negozioazioa amaitutzat eman dezan, nazioaren subiranotasunaren banaketa bilatzen baitu.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko otsailaren 14an egindako bilkuran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela honako mozio hau erretiratu zela: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Kataluniako Gobernuarekiko negozioazioa amaitutzat eman dezan, nazioaren subiranotasunaren banaketa

bilatzen baitu". Mozioa Ana Beltrán Villalba andre-ak aurkeztu zuen eta 2019ko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza